

MINTZAGAIA ETA GALDEGAIA

Sarrera:

Sarritan galdetu ohi da bazterretan zer nolako ordenan jarri behar diren hitzak euskaraz egoki kokatzeko perpasuz barruko katean. Askotan entzun izan dugu, gainera, euskeraren joskera (euskararen adierazgarritzat jotzen den sena) oso zaila dela eta horrek hainbatetan nekagarri bihurtzen duela hura ikastea. Era berean, Euskaltzaindiak Durangon Euskal Ebakeraz egindako jardunaldietan (Euskal Ebakera, II. ihardunaldiak: Maiatzak 30/81) kezka larria agertu zen une honetan bizitzako zenbait alorretan euskararen erabilera trakestu egin dela edo ikusiz.

Zer esanik ez, euskaldunok sarri baino sarriago gizarteak daraman abiada azkarrari erantzun nahirik, inguruetako hizkuntzetako iturrietatik edan beharrean izaten gara eta hartutakoa geureganatu egin beharrean, hausnarketarako astirik ez eta irentsi egiten dugu, era berean, gure hizkuntza ahuldu eta kurtzatu. Ez zaigu gaizki etorriko, bada, noiz behinka euskararen erabilerrari buruz gogoetak zein hausnarketa egitea.

Honako horri hauetan, beraz, gai horri buruzko aurkezpen laburra eskaini nahi dizuet, argitasunik gehiago nahi duenari azalpen bila jotzeko bidea irakatsiz. Harrokeria litzateke arazo hau guztiz argitzeko gai naizela uste izatea. Orain artekoek ere halakorik lortu ez badute, gerora ere izango da, nonbait, zer argitu bazterretan.

A) Aurkezpen orokorra:

- a) Hizkuntza katea bat dugu. Hain zuzen mezu-katea bat. *Bidalizalea* eta *hartzalea* tartean dituen katea. Beste modu batetara esateko:

HIZTUN - ENTZULE edo eta IDAZLE - IRAKURLEEN artean sortzen den erlazioa.

- b) Hizkuntza mezu-katea izanik, hainbat elementuz osotua agertzen zaigu. Batzutan mezu-katea *nahasia* eta beste hainbatetan *erraza*. Baina non datza arazoa?

[Katea horretako elementuen ordena jakitean].

Ikusiko dogunez ezin dira katea horretako elementuak edonola nahastu eta erabili. Honako esaldi bat esaten badut: *Gaur goizean Mirenek baseritik ogi batzu ekarri dizkigu Bilbon bizi garenoi*, denok ulertzen dugu esan nahi dena. Ongi antolatutako katea baten aurrean aurkitzen garela aitortu behar. Baina, katea hori egiterakoan erabiltako elementuak honako eran nahastuko bagenitu, hots, *gaur Mirenek batzu dizkigu Bilbon baseritik goizean garenoi ekarri bizi ogi ez genduke ezer ulertuko*. Elementu guztiak banaka identifikatzen ditugunarren, hori ez dela euskara esango genduke arrazoi osoz.

- c) Bestalde, katea horretan *hiztuna/entzulea (idazlea/irakurlea)*, hots, *igorlea eta hartzalea* egonik, hiztunak edo idazleak bi eratako informazioa ematen dio entzule edo irakurleari:

1) *Ezaguna*: entzuleak lehendik dakiena (elkarrizketan zehar lehenago agertua).

2) *Berria*: edo berri ustekoa, hau da, entzulcari lehen aldiz jakinerazi nahi zaiona.

Adibide gisa honako perpausa hau ZURE LEHENGUSINA LOTSABAKOA DA aztertzen baldin badugu, zera agertzen zaigu:

-a) dena informazio berria

-b) *lotsabakoa da informazio berria: biok galdegaia* izango dira.

Esaldia aldatuz beste honakoa egingo banegu: *lotsabakoa zure lehengusina da, jarraikoaren aurrean aurkituko ginateke:*

-a) *lotsabakoa: informazio suposatua: mintzagaita, hots «tema».*

-b) *zure lehengusina da: informazio berria: galdegaia, hots «rema edo fokoa».*

INFORMAZIO HORREN, ARABERA, ZER NOLAKO DEN KONTUAN IZANIK, SORTUKO ZAIGU ORDENA

B) Hurbilketa:

a) *Perpauza hitz eta morfema saila dela esan dugu, hau da, katea bat. Katea horretako elementu desberdinek ordena batean joan behar dute.*

◦ Perpauza barruko sintagma bakoitzaren barruko elementuen ordena oso zehatza izan ohi da. Ezin dira edozelan jarri. Esate baterako, *izen-laguna* (etxeko sagarrak, Begoren gurasoak) beti izenaren aurrean joan ohi da; *adjetiboa* (*zakur zuria*) atzean; erakuslea (*pilotaleku hori*), aurrean; zenbakiak, *bat* izan ezik, izenaren aurrean (*hamar ogi, baina, katu bat*)...

◦ Baina perpauza barruko sintagmatikoen nahiko askatasun dute leku batean nahiz bestean jarririk agertzeko. Hemen askatasun handiz joka daiteke:

- Aitak *keparen zakurra ikusi du* gaur kalean herrenka.
- *Keparen zakurra ikusi du* aitak gaur kalean herrenka.
- Gaur kalean herrenka *Keparen zakurra ikusi du* aitak.
- Herrenka kalean *Keparen zakurra ikusi du* aitak gaur.
- Kalean herrenka gaur *Keparen zakurra ikusi du* aitak.
- Kalean aitak gaur herrenka *Keparen zakurra ikusi du*.

° Aurreko kasu guztietan ez dugu inoiz aldatu elementu bat bere tokitik: *Keparen zakurra* beti aditzaren aurrean jarri dugu. Hori dela eta, nahiz eta itxura desberdinetako esaldiak egin, ez zaigu esaldiaren esan nahirik aldatu. Azpimarratzea edo komunikatzea nahi izan duguna (informazio berria) beti aditzaren aurrean jarri izan dugu.

b) *Galdegaia*:

° Esaldiaren barruan azpimarratu nahirik aditzaren aurrean joaten den elementuari zein zintagmari deitzen diogu *galdegaia*. Hau da, ezezagun dugun edo suposatzen dugun elementuari deitzen diogu horrela, elementu hori normalki aditzaren aurrean jarriz.

° Galderak egiterakoan galdetzailea (ezezaguntasun hori adierazten duena) aditzaren aurrean jartzen dugu eta hark jasoten duen erantzuna ere bai:

- *NOIZ etorri zen aita?* - *ATZO etorri zen aita.*
- *NORK eman zion liburua?* - *KEPAK eman zion liburua.*

° Honen arabera, edozein sintagma izan daiteke galdegai. Hala ere, zein sintagma aurkitzen den aditzaren aurrean kontutan hartuz, esaldi guztiz ezberdinak sortzen zaizkigu bertako katean nahasten diren elementuak berdinak izan arren. Begira hurrengo esaldioi:

- *Jonek emazteari HARRIBITXIA erosi dio. ZER?*
- *Jonek EMAZTEARI erosi dio harribitxia. NOR?*
- *JONEK erosi dio emazteari harribitxia. NORK?*
- *EROSI DIO* Jonek emazteari harribitxia. *ADITZA* bera da galdera.

° Ikusten denez, euskaraz *ezezaguntzat* edo *garantziutsutat* jotzen dugun elementu zein zintagmari *galdegaia*

deitzen diogu eta aditzaren aurrean jartzen. Beste elementuek *mintzagaia* (neurri batetan ezagutuzat jotzen direnak) osotuko lukete.

C) Arau nagusiak

Normalki euskara ikasi edo sakondu nahi duenak, esaldi barruko katea horretan elementuak egoki jartzeko arauak jakin nahi izaten du, bestelako gogoketa eta hausnarketak alde utzirik. Kasu guztietarako bideak ezin badira argitu ere, ba ditugu, orokortasunean hartuta argibide gisa hartzen diren abiapuntu batzu, hain zuzen, Altube gramatikari ospetsuak jaso eta eskainitakoak. Orokorren jarraikook dituzu:

- 1) Euskal perpausa barruko elementuen ordenak ez du, normalki, *funzio sintaktikorik* markatzen. Hala ere atributuaren eta aposizioaren kasuan ordenak izan lezake garrantzia:

Nire laguna lapurra da (Is + At.S + A) eta *lapurra nire laguna da* (IS + Atr.S + A) perpausok esannahi desberdina dute. Elementu bat (atributu funtzioa betetzen duena) tokiz aldatzeak esannahia aldatzea ekarri du. Berdintsu, honako honetan ere: *Mikelek, zure langileak, egin du* eta *zure langileak, Mikelek, egin du* zeharo esannahi desberdina dute.

- 2) *Ordena arruntza* honelakoa izango litzateke: *ISnor (Adl- Adb) ISnor A*. Hala ere, ikusi dugunez, ordenak esannahi berezia hartzen du euskal joskeran elementu bat besteen gainetik markatu nahi denean. Honakoa agiri zaigu:

- a) *Markatu nahi den elementua aditza bera ez denean*, elementu hori aditzaren aurrean ematen da: *Arropak ekarri dizkio gaur aitak amari* (zertzu).

- b) *Espresuki markatu nahi den elementua aditza bera denean*, aditz horren partizipioa bereizten da eta partizipioa bera izango da galdegaia:

◦ *Adizki sintetikoetan*: Partizipioa + Sintetikoak: horrek

EKARRI DAKAR ogia.

◦ *Adizki perifrastikoetan*: Part. + EGIN(ten/go) = Lag: ekarri EGIN dio.

c) Espresuki markatu nahi den elementua aditzak aditzera ematen duenaren *baiezotasuna* denean, era honetara ematen da:

◦ *Adizki sintetikoetan*: BA + Sintetikoak: *BA dator* laguna (Ba al dator?)

◦ *Adizki perifrastikoetan*: Aditza perpausaren hasieran: *Jan du* ogia (Jan al du?)

d) *Esaldi osoaren baiezotasuna edo ezezotasuna markatu nahi denean*:

◦ *Baiezotasuna*: Esaldiak ez du ordenan aldaketarik izaten: *Gaur etorri da?*

- *Bai, gaur etorri da.*

◦ *Ezezotasuna*: Esaldiak transformazioak jasaten ditu: *Gaur etorri da?*

- *Ez, ez da gaur etorri/ez, ez da etorri gaur.*

e) *Ordena ez ezik, entonazioa eta beste bide prosadiko batzu ere erabiltzen dira galdegaia markatzeko.*

D) Arau orokor horiei buruz hainbat ohar:

1a) Arazorik handiena, zenbait idazle jatorrek, itxura batean behintzat, ez dituztela hain zehatz betetzen arau horiek ikustean datza. Alde batetik idazle jatorrak eta erderek kutsatu gabeak izanik ezin esan hutsegiteak dituztenik. Bestetik, agerian kontra jarritako jokera erakusten dute. Horrek kezka eta itaunak sortzen dizkigu hizkuntzaren erabilera jatorraren zertzeladak aztertu nahi ditugunoi.

2a) Bestalde, ez dugu Euskal Herri osoan jokera eta tradizio berdina. Adibidez, Gipuzkoa-Iparraldean ezezagunak dira honako esaldiok: *etorri dator, jakin daki...* Iparraldean,

gainera, aditz laguntzailea aurreratuz jokatu ohi da:
«Orratzak baino hariak luzeago behar du izan» edo «Nork
du okhela jan? Zakurrak du okhela jan».

3a) Beraz, zer-nolako ordena zaindu beharko?

a) Lehen eta behin honako hau azpimarratu behar da:

* *Katea, mintzatua* denean, kateaz aparte, beste zenbait elementuaren laguntzaz jokatzen dugula: *entonazioa, ahots-etenak, keinuak...*

* *Katea idatzia denean*, ostera, aurrean daukaguna interpretatu behar izaten dugu. Sarritan gorago aipaturiko arauak ez dira, itxuraz behintzat, zehazki betetzen.

b) Baina zenbateraino dira bete-beharrezkoak Altuberen arau horiek, perpausa idatzietan? nola jokatu guk jator idazteko? Horretan dugu arazoaren muina.

Jarraian, ondoko lerrootan, honetaz maisuki idatzi duten bi hizkuntzalari jakitsuaren eritziak jaso eta eskainiko dizkizut. Ezinbestekoa dugu euren ikuspuntuak irakurri eta aztertzea, guztiak ezin badira ere, zalantzarik gehienak argituko dizkigute eta.

E) Koldo Mitxelenaren zenbait ohar

Hizkuntzalari honen kritziak, orokorki Patxi Goenagak «*Gramatika bideetan*» liburuaren 2. argitalpenean jasoten ditu. Eta haren kritzietan oinarriturik oso azalpen argi eta ugariak eskaini ere bai. Nik zuzenean, Koldok idatzitako zenbait esaldi jaso eta eskaini nahi dizkizut zuk, zeuk hausnar ditzazun. Jarraiko puntuak azpimarratuko nituzke beronen lan bikain luze horretan: (2).

- 1.- *Arazo hau sakonki azentuekin loturik dagoen zerbait da:*
«Ez da, beraz, harritzeko Altube, euskal joskeraz gainera, gure azentua sakonki azertu zuena izatea. Gurea,

diot, gure eskualde hauetakoa delako, eta ez inolaz ere euskaldun guztiena. Ez dut, gainera, uste, baina hau ez da uste erdi ustela baino, zaharrena denik euskal azeriaren artean. (58 or.).

2.- *Euskal izen-sintagmak, bestalde, ba dituzte mugak:* «Hona laburki nora noan: «nekez jasoko dugula, entzun ditzakegun erantzuntan, klase bateko zein besteko artikulurik ez daraman izenik edo izer sintagmarik. Salbuespenak salbu, jakina, gertatu ohi den bezala. Izenetan, esate baterako, seme! eta horren antzeko deigarriak (Lekuona jaunak «deikiak» inoiz deitu zituena, alegia) mugatzailerik gabe ager daitezke, guztiok dakigunez» (59).

3.- *Euskaraz ere, ba daude elkarrengandik banandu ezin diren elementuak:* «Azterketa edo ikerlan honek beste norabait eraman ninduen ustekabea, azentuaren barrutian mugitzen nintzelakoan. Argi zegoela ikusi nuen bazirela euskaraz elkarrengandik bereiz zitezkeen perpausaren osagaien ondoan, ezin bereiz zitezkeenak ere»: (61). Adibidea:

Etxeke ate aurrean / ikusi ditut / hamar ume / aukiarene inguruan / Keparen emaztearekin / jolasezko litzketan.

4.- *Hala ere oraindik zehaztu gabe dugu nola ordenatu elementuak perpausaren barruan:* «Oraindik egiteko dago, oker ez banabil, euskal perpausaren barruan, barruti horretan mugitu nahi badugu, aurki daitezkeen osagaien arteko mugak (nahiz, bestela hartzen baditugu, josturak edo junturak) nola ordenatu behar genituzkeen, ahulenetik bortitzenera edota, berdintsu dena, bortitzenetik ahulenera». (61) (...) «Bestarik da ez dakiguna: ea zein mailatan, esan bezala, ipini behar dugun bakoitza besteen aldamenen muga den aldetik duen sendotasun» (62).

5.- *Noiz balio duten Altuberen erregelak:*

- «Elkarrizketa hartu dut ahotan, eskuarki, hori delako behar bada Altuberen azterketan behar adina garbitu

gabe gelditu zen puntua» (...) «Moldamodu horrek ez luke, beraz, balio, berez behintzat, eske eta aginduak aditzera ematen direnako, ezta ere bihotz barruan irakiten darakeguna bridarik gabe isurtzen zaigunean. Edo, berdin dena, itsumustuko eta eriosuarreko ahapaldiak artoski eratzen dituguncan hotz-hotzean» (62).

- «Direlako lege horiek ez dute ere balio ez gogoetan ari garenerako eta ezta ere kontu kontari mintzatzan denarentzako. Begira zer dioen honetaz Patxi Goenagak atera berri duen liburuan (6): «Galdegaiaren legea batez ere perpausa laburretan eta elkarrizketetan errespetatu ohi da, galde-erantzun bidez ari garenean, alergia... Narrazio kutsua dagoenean ere, ordena libreago gelditzen da galdegaiari buruzko lege honetatik»:

Jatorrizko testua

Erregelen arabera

«Andonik bere makila hartu zuen» / «Makila hartu zuen Andonik

«Agurtu zituen lagunak / «Lagunak agurtu zituen

«Joan zen ondoren Peruren etxera» / «Peruren etxera joan zen, ondoren

«Eskatu zizkion giltzak(...)» / «Giltzak eskatu zizkion.

«Hemen ez dela errespetatzen dirudi-gehitzen dugaldegai kontua» eta nik ere ezetz esango nuke, eta ez dela errespetatzen, gainera, ez dagoelako errespetatu premiarik» (...) «Duda egin daiteke zein den hor kontabiderik zuzenena, biziena, egokiena edo nahi duzuenena; ez, ordea, zen den gramatikari lotuena eta atxikiena». Bartzuek zein besteek eskubide osoa baitute kopeta altxatzeko, errugabe agertzen direlakoan gramatikaren begi zorrotzen aurrean» (63).

6.- *Zenbait kasutan, etenak, ixiluneak markatzen du galdegaia:*

- Adibidez: «Gerratean Pernandok Betelura BAGAJEA eramian behar zuen» (Patxi Goenagak) honela jar daiteke:

Bagajea Betelura eraman behar zuen Fernandok gerratean. Esan dudana honela irakur daiteke: BAGAJEA / Betelura / ERAMAN behar zuen Fernandok / gerratean / «Bestela esan, galdegaiaren eta aditzaren artean etena, ixilunea, gertzen dela edo gertakizun dela, bederen» (67).

- Ikus beste adibide batzu, etenaren garrantziaz jabetzeko: (72)

NOIZ? NORK?	BAI ALA EZ?
Gaur izan dute	Gaur, izan dute
Gaur dute	Gaur, badute
Adiskideak eraman dute	Adiskideak, eraman du
Adiskideak darama	Adiskideak, badarama

- Eten horri esker bereiz ditzakegu ondoko esaldiaren esanahi desberdinak:

Baserriko bi, lagun egitera irten dira

Baserriko bi lagun, egitera irten dira

Baserriko bi lagun egitera, irten dira

7.- *Zer jaso ohi den kontari ari garenean:*

«Kontari ari denak badaki edo pentsa dezake badirela franko gauza entzuleak edo irakurleak alde zurratik dakizkienak edo jakin behar lituzkeenak, bederen. (...) Irakurleak, gainera ez du, maizenik eta damurik, galde egiteko aukerarik izaten. Jokua, azken finean, ezagunaren eta ezzagunaren arteko orekagunea aurkitzean datza.

Ezazunak, ezagun delarik, ez du aditzera emateko premiarik, ez baitu ezerk besteren gogoia alde zurratik ezagun denaren errepikatzeak adina nekatzen, aspertzen eta gogaiterazten.

Ezezagun denaren berri, aitzitik, zenbat ere lasterrago eta zehazkiago ematen den, hobe». (64).

8.- *Altuberen erregelak orain ere ongi daude eta betegarriak dira, ez bait dira hark asmatuak, hizkuntzatik ateratakoak baino.*

«Eta bada ezpada ere diot, «Altuberen legeak» ohorez-kotzat usatu izan dut beti, «Kepler-en legeak» eta aipatu ohi diren gisan, Altube zenak behin batean txartzat hartu bazidan ere: hark hizkuntzan aurkituak zirela esan nahi nuen, eta ez hark bere burutik asmatuak. (64).

«Noraino betetzen eta bete izan diren, beste kontua genduke ta nahiago nuke litzura irristakor horren saihestetik pasa. (...) Orain bertan,agian, ez die zenbait idazlek duela urte batzu zor zitzaien begiramenik pagatzen. Hala guztiz eta dena den, beteak edo betekotzat diren heinean ez da Altubek finkatu zuen teoria muinean aldatu, xehetasunetan baizik, onenean ere». (65) (gero erregelak aipatzen ditu).

9.- *Galdegai* ez dugu euskararen aparteko zerbait, oso ezaguna baita beste hizkuntzetan «Galdegai, erantzunaren muin gisa begietsia, ongi ezaguna da, eta aspaldidanik, beste hizkuntzetan: beste izenez ezaguna, noski. Hona non duen erroa ikusmolde horrek. Hizketan, besteri zerbait esaten diogunean (eta beste hori geure burua ere izan daiteke, besteren itxuraz estalia), badira zenbait gauza hark eta biok dakizkigunak edo, behintzat, batak besteak dakizkiela pentsa ditzakeenak. Jakinaren gainean ari gara horrelakoez mintzatzen garenean eta laster aspertuko ginatke jakinaren gainekoen gainean ari behar banegu etengabe. Horrela, bada, edozein hizketak badu beti aurrez, aldez aurretik, emana den zerbait, eta zerbait baino gehiago: horrek, gurean, ez du izen berezirik, «galdegai ez den beste guztia» ez baldin bada. Galdegai, berriz, munduan barrena «foku» edo deitzen duten

horixe da, noski, guti gora behera: informazio berria daraman eta dakarren perpausaren zatia» (66).

«Harritzeko ere bada, ongi begiratu gero, hauzi honetan gertatzen zaiguna. Mundu guztia, izan ere, perpaus arruntenetatik baiezko nahiz ezezko, abiatu ohi da galdetzeko egiten direnetan bukatzeko» (66).

«Badirudi horrenbestez galdegaiaren teoria ez dela, mai-zegi gertau ohi den arabera, harako euskaldunon joera eta birtute sonatu haren agerkari berria». (67)

10.- *Zein izango litzateke, beraz, euskal perpausen barmeko ordena?*

Euskararen ordena SOV (Subjetoa + Predikatua + Aditza) litzateke. Ordena hau ez dugu, bestalde zerbit berezia, latinez ere hala agertzen baitzaigu. (68) Hala ere euskarak askatasun gehiagorekin jokatu luke.

Adibidez: latinez: Quid mihi eta tibi est, mulier? (Io. 2,4)

euskeraz: «Emaztekoa, zer da ene eta zure arteko? (Duvoisin-ek)

«Zer dut nie hirequin emaztea? Leixarragak

«Emakume, zer Zuri ta Neri? Orixek

«Emakume, Zuri ta Niri zer? Olabidek (Behar bada zuzenkien)

endaraz: «a mí y a tí, ¿qué?».

11.- *Oraindik guztiz argitu gabeko hauzia*

«Ongi erabiltzen bide ditugu galdegileak, horien erabileraren kontrako bekatu larririk inori egozten ez zaionez gero. Hortik ez da, haatik, segitzen erabilera horren arrazoi zuzenik emateko, espresuki diot, gauza garenik beti» (67)

«Dena den, komeni litzajuke hauzi multzo honi guz-

tioni hurbilxeagotik begiratzea. Aztertu ez ditugun puntuak ugari direlako oraindik, aurrenik, eta hauzi zaharrak argi berriz ikus ditzakegulako gero. Ez baitugu inondik ere behar, gurcan hain maiz gertatu ohi denez, iritziak, zurrundurik, ezin-ukituzko dogma bihurtzea» (79)

F) Lino Akesoloren zerbait ohar:

Laburki baldin bada ere, Koldo Mitxelenaen eritziak jaso ondoren beste hizkuntzalari jakintsu baten, hain zuzen, Lino Akesolo idazlearen ikuspuntuen laburpena eskaini nahi dizuet jarraiko lerroetan, honelako lan baten alkondara estuak ahalbideratzen duen adinean: (Lino Akesolo: *Galdegaiarekiko aztergai bat edo beste*. Euskaltzaindiaren IX Biltzarra. Arrasate (1979). (3)

1.- *Zer den galdegaia:* «Euskararen lege au zer dan badakigu gutxi gorabeera. Euskaldunak, esaldiak asmatzen, dakiela edo ez dakiela, galdera nausi batzuei erantzuten omen die, eta egindako galderari erantzuten dion itza, mintzatzailearen asmotan, hitz nagusia edo garrantzi andikoena dana, aditzaren aurrean jartzen du». (371. orr.)

2.- *Nola doan perpausaren barnean galdegai hori:* «Lege onck badu beste alderditxo bat ere. Galdegaia aditzaren aurretik jarri bear dala esanez ez degu dana esan. Galdegai orrek, aditzaren aurretik joanez gaiñera, aditzari datxikola joan bear du; aditzaren eta galdegaiaren artean ez da etenik bear; biak bat egiñik bezala eta alkarri loturik esan bear dira» (...) Lege au ongi gorde gabez, esaldi bat bera oker edo bi eratara ulertzea gerta daiteke.

Adibidea: «Aita , etorri da» = etorri al da Aita?

«Aita etorri da» = nor etorri da?

(...) «Egia da Altubek gai onegan azentuari edo doñuari ematen diola garrantzia eta azentuaren aldetik ematen dituela ainbat azalpen eta argibide. Etentxoa egin dan ala ez, indarra zein ematen zaion begiratzeak ez ote du ainbeste edo berdintsu balio? Gaiñera azentua ez da

alde guztietan berdiña» (372-373. orr.).

3.- *Zein aditz jarri ondoren, leen-lekuan, aditz laguntzaillea ala bestea?*

«Aditza laguntzailearekin dancan, ez dabilta euskalki guztiak ildo beretik, ez diote ari leku berdiña ematen. Iparraldeko euskalkiek aditz laguntzaillea jarri oi dute galdegaiaren ondoren. (...) Edo: Nork du okhela jan? -Zakurrak du okhela jan» (...) Ala ere, ez dezakegu esan aditz laguntzaillea lea aurreratzean Iparraldekoena bakarrik danik. Eta ez bakarrik, gure bertsolariak, beñ-soak bearturik, bide ori artu behar izaten dutelako. Itz-lauzko idazleek ere izan dute olako esaldirik» (...) Bostsei urteko nintzela osaba orrenean nintzan, eta arek, zirikatzarren, neri: «Ara, guk lapiko barria eta zuek ez». Eta nik: «Lapiko barria !Ba! Ori be, bateti baltzitu, becs-teti baltzitu, laster da zartu». *Laster da il, laster da galdu*, onclako esaldiak currez erabiltzen dira Bizkaian» (373. orr.)

4.- *Esaldi bakoitzean hainbat galdegai izan daitezke: «Esaldi bakoitzean bi aditz eta bi galdegai ere gerta daitezkeela esan bearra dago, eta bata aditz batari eta bestea besteari lotua aurki daiteke. Esaterako: «Gizon orrek ederki daki gezurak zuritzen, ez dana badantzat ematea. Batak nola daki galderari erantzuten dio, eta besteak zer egiten edo zer zuritzen galderari (374. orr.)»*

5.- *Altuberen erregelak pausu handia ekarri dute: «Altube zenak arlo ontan maisuki aztertu eta irakatsiek euskal joskeraren muina argitzeko laguntza ederra ekarri dute, eta aurrerakada andia izan dira (...) Itzak (euskal-esaldietan), atalka, sortaka bezala sartuak daude, alkarri tinko atxikiak, eta batzuk atxikiago eta lotuago besteak baino. Euskal-joskeran, galdegaiaren garrantzia ukatuko duenik nekez aurkituko da gaur». (373. orr.)*

6.- *Egin aditzaren erabilketa:* «Jokera-arau bat, gure literatura zaurrean oinarririk gabekoa, *egin* aditza laguntzailletzat arturik sortutako esaldiena da. Onelako esaldiak gaur maiz, erabiltzen dira gaur bear bada maizegi. Literatura zaurrean ez dute ia aztarrenik utzi». (373. orr.)

Egin aditza onek izan ditu eta baditu beste erabilkera batzuk ere, galdegaiaren zer-ikusi aundirik ez badute ere. Bat, beste aditz baten ordean, aditz bera berriz ez aipatzearen jarririk «Hala dabillanari gerthatzen zai-kana *egin* zait neri ere». (Axular). «Konfesatu al zara? bai, *egin* naz, zuaz zu ere egitera» (J. I. Arana, Euskal Herria, 1881, 287) (375. orr.).

«Ainbat esaldi jator osotu edo sortu daitezke *egin* onekin. «Onek zer ikusi, a ikasi» egiten du. «Dominus Vobiscum: agindu eta emon ez, *egin* euskun... Ilondoan *egin* behar dira: ongarrria itzuli, babazarra erein, eta txerria il... Kanta zaurrean: «Askok egiten dio / San Antoni-ori: / egun batean joan, / bestean etorri».

Orrelaxe, Iztuetak, aditz askodun esaldi bat azkena emateko eta guztiak elkarrekin lotzeko, *egin* aditzera jo zuen onako testu ontan: «Asi zan purrustada, bein (baratzeko landare) batari murtxi, gero besteari ximikatu, zaiñiak eten, besangak ausi, azalak zanpatu, mamiak miaztu, loreak usaindu, orriak igortzi, pipitak ortzikatu eta beste asmakeri guztiak *egiten*» (Gipuzkoako Kondaira, 165-169)» (375. orr.).

7.- *Zenbateraino betetzen diran Altuberen erregelak:*

- «Galdera laburrezko esaldietan lege auek errez dira betetzen. Baiña askotan ez da erraz erabakiko non dan edo zein dan galdegaia, zein dan une bakoitzean garrantzi geien duena, batez ere, esaldi asko saillean datoztenean» (377. orr.)

- «Liturjiako irakurgaietatik ona bat, Jesukristok jarrita-

ko konparaketa batekoa: «Egin zuen euria, etorri ziren uoldeak, atera zuen aizea, jo zuen etxe ura, eta erori egin zan» (Mat. 7,27).

Esaldi auen antzekoak, kontakizun baten arian daitoztenak, berarizko bizitasuna ematen diote itz-jardunari, oso jatorrak dira eta aintzat dauzka Altubek. Galdegaia zein dan edo ez dan burua austen erabilli gabe sortzen dira. Gertakizuriak alkarren ondoan datoz, eta auetako bakoitzeko aditzak dioena dute ardatz eta galdegai. Erri-literaturan bada orrelako joskera bizirik: «Errotara niñoala, topa neban erbi bat, atera neutsan begi bat, ipifi neutsan barri bat. Errota txikiñak: klin-klan!».

Altubereren irakatsiak bein baiño sarriago aantzi egiten ditugula-ta nago, edo beintzat oker samar ulertzen ditugula, erdizka ez zuzenegi. Orrela, geiegitan, aditza atzera bota bearrez ez ote gabiltza? Hola egilez aditza atzeratuz askotan asmatuko dugu, jator idatziko dugu, baiña ez beti. Noizik bein, uste dogun baiño geiagotan, aditzak aurreko lekua berea du. Batez ere gertakarizko esaldietan». (378. orr.)

8.- *Eta zer esan «auxe, zera... esan du» eta halakoak sartzeari buruz?*

- Arlo honetan maisuak eman zigun irakatsia ez dugu aantzi bearke ta ola maisu berak emandako beste irakatsi batzuk obeto ulertu al izango ditugu edo beintzat ez es-tuegi hartu. Eta ona auetako bat: kontaera baten barruan, gertakarien arian, norbaiten itzak sartu bear diranekoa. Orduan, aipatu behar diran itzei sarreratxo bat jartzea egoki izango zala dio maisuak «*du, auxe* edo *on-laxe esan zuen* edo *erantzun zuen*», edo olakoren bat sarreratztat ipiñiz.

Horra kontuan hartzekoa: Ez du esan maisuak ori egitea beharrezkoa edo ezinbestekoa danik. Eta aitorten aux:

egiten du berak: Erri erriak jaramonik gutxi egiten diola delako lege horri. Eta adibide au jartzen du: «Amak esan dit biyar lan asko daukala eta ezin etorri al izango dala». Jatorrago legokela dio beste onetara: «Biyar lan asko daukala eta ezin etorri al izango dala esan dit amak». Ala ote da? Jatorrako ote dago? Nik ez nuke esango or argiegi dagoenik zein dan galdegai edo zein dan garrantzizuen, ala amak esan didalako, ala amak zer esan didan, ala bata nai bestea, zein bere eñean» (379. orr.).

9.- *Laburpena*: Lino Akesolo Jaunak, gai honetaz dituen ezauera ugariak sorta batetan bilduz, azken berroetan, honako laburpen zehatz hau eskaintzen digu:

1) Galdegaiak euskal-joskeran garrantzi andia du; gure izkuntzaren bereizgarrietakoa da.

2) Galdegaiak, euskal-esaldietan, aditzaren aurrean eta oni datzikala dioa, biak bat egiten dute, eta au oguzkerak ere erakutsi bear du.

3) Oguzkera ezberdiñak galdera ezberdiña adierazten du. «Aita etorri da», eta «aita, etorri da», biak itzez bat izan arren, biak galdera ezberdiña daukate, eta oguzkera ezberdiña, eta ez dute gauza bera esaten.

4) Aditza bera galdegai danean, batez ere, Egoaldeko euskalkietan, *egin* ematen zaio ari laguntzaille eta euskarri. Baiña ez beti.

5) Baiezko esaldietan, aditz galdegai onek ez du eramaten *egin* orren laguntzarik, eta ola nolabait aurreko itzetatik bananduz.

6) *Egin*-dun esaldiok ez dira beti bearrezkoak, bestela ere erabili daitezke, *egin* ori gabe. «Ez duela ekarriko, baiña ekarri du, edo ekarri egin du». Bigarren honek bear bada, indar geiago eman nai dio baiezkoari. Gaiñera, Bidasoaz onuzko idazleak jatorki idatziko du:

«Eguzkiaren beroak ezkoa bigundu eta lurra gogortu egiten du». Baita ere Lapurdi aldekoak: «Iguzkiaren beroak ezkoa du biguntzen, baiña lurra gogortzen».

7) Arian datozen kontakizun luzeetan, besterik iruditutako arren, aditza bera izan daiteke galdegai eta bera joango da aurretik, eta berak artuko du indarra, aditza sintetikoaren galdegai eta bera joango da aurretik, bai ba-dun esaldietan eta bai bestelakoetan.

8) Ontan estuegi jokatzeaz, Altuberaren irakatsi batzuei lotu bearrez, beste batzuk antzeko arriskua erori gaitzke» (380. orr.)

Ondorioa

Aurreko guzti horiek irakurri eta kontuan hartu ondoren, nire eritziz arazoa oraindik ilun samar ageri zaigunez, idazle jatorren idazkiak behin eta berriro irakurriz euskal joskeraren senaz jabetzeko saioak egitea gomendatzera ausartuko nitzateke.

Beraz, cuskaraz ongi eta zuzen idazten ikasteko zein egoki mintzatzea lortzeko erarik egokiena, praktikoki hizkuntzaren erabilera jatorra egin ohi dutenen iturri gardenetatik txurrut bigun asegarriak egitea litzateke.

Patxi Uribarren

- (1) Patxi Goenaga: *Gramatika bideetan*. EREIN. 1980 (Zarautz) 197-209 orr.
- (2) Koldo Mitxelena: *Galdegai eta mintzagaia euskaraz*. Euskal Linguistika eta literatura: bide berriak. Bilbo (1981).
- (3) Lino Akesolo: *Galdegaiarekiko aztergai bat edo beste*. EUSKARA. (1980-2) 371-380 orr.